

Ebazpena: R007/2025

Espedienteak: E140/2023 eta E145/2023

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 26a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofia Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek, eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) Nafarroako Foru Ogasunaren (aurrerantzean, NFO) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita MANVER GIZARTEA, S.L. (aurrerantzean, MANVER) zergapekoaren zerga-egoitza zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 140/2023 eta 145/2023 espediente-zenbakiekin.

AURREKARIAK

1.- MANVER sozietatea Donostian eratu zen 2002ko abenduaren 9an, eta 2007ko azaroaz geroztik Donostiako XXXXXXXX plazako X zk.ko X eskuinean du helbidea. Halaber ageri da helbide hori bazkide eta administratzaileen egoitza gisa.

Cruz andrea eta Rogelio jauna dira MANVER elkarteko bazkideak. Bestalde, 2002an eratu zenetik 2007ko azarora arte, Rogelio jauna izan zen administratzaile bakarra, eta 2007ko azaroaz geroztik, berriz, Cruz andrea.

MANVERek, eratu zenetik, merkataritzako bitartekaritza du helburu sozial gisa (EJZren 1.631 epigrafea), eta bere jarduera itsaskiak garbitzeko eta merkaturatzeko makinaren salmentarekin lotua da.

2.- GFAko Ikuskapen Zuzendariordetza Nagusiak MANVER erakundearen zerga-egoitza zehazteari buruzko txostena egin zuen 2023ko otsailaren 3an, eta bertan ondorioztatu zuen merkataritza-etxeak Nafarroako Foru Komunitatean zuela zerga-egoitza, gogoeta hauetan oinarrituta:

- 2008ko urtarrilean, MANVER erakundeak higiezin bat erosi zuen Genevillan (Nafarroa), birgaitzeko eta ostatu turistikoa emateko "CU" izenarekin. Higiezin hori eta Hyundai markako ibilgailu bat dira sozietatearen ibilgetu bakarra.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak turismo-erreserbetarako plataformen bidez lortutako informazioaren arabera, bazkide eta administratzaile diharduten Cruz andreak eta Rogelio jaunak pertsonalki egiten dute harrera establezimenduan bertan.
- MANVEReko bazkide Cruz andreak eta Rogelio jaunak, 2022ko urriaren 19an GFaren Ikuskaritzaren bulegoetan egindako agerraldian, adierazi zuten 2019ko martxotik aurrera Genevillan bizi zirela, eta Donostiara noizbehinka baino ez zirela joaten.

Agerraldi hartan bertan adierazi zutenenez, MANVERen hasierako jarduera, itsaskiak garbitzeko eta merkaturatzeko makinak salmentarekin lotutakoa, ordurako ia ez zen existitzen. Adierazi zuten noizean behin diru-sarrerak lortzen zituztela itsaskiak tratatzeko makinak saltzeagatik komisioengatik, bai eta merkatu-azterketak eta itzulpenak egiteagatik ere. Beraz, erakundearen jarduera nagusia nekazaritza-turismoko negozioa zen, Genevillako higiezinan.

- Sozietatearen administratzaile Cruz andreaki dagokionez, Genevillan bizi zen urtearen erdian baino gehiago eta, beraz, herri horretatik zuzentzen eta kudeatzen zuen sozietatea.
- Sozietatearen kontabilitateari eta zerga-aitorpenen aurkezpenari dagokionez, berriz, Donostiako kudeatzaile batek egiten zien dena. Kudeatzailearen Donostiako bulegoetan zein Genevillan bertan gordetzen eta artxibatzen zen dokumentazioa.
- Banku-kontu bakarra du MANVERek. Eta eroste-eragiketaz aztertuta, ikusi da mugimenduen artean autobideko bidesariak, gasolindegia, aparkalekuak, jatetxeak eta dendetako erosketak direla, besteak beste, 2019tik 2022ra bitartean; horietatik % 99,9 Santikurutze Kanpezun

(Arabako udalerria, Genevillatik 5 kilometrora dagoena), Logroñon (Genevillatik 29 kilometrora) eta Lizarran (Genevillatik 36 kilometrora) egindako eragiketei dagozkie.

- Bazkideek eta administratzaileak hainbat aurrezki-kontu dituzte Santikurutze Kanpezun eta beste bat Donostian.
- MANVERen egoitza sozialeko elektrizitate-kontsumoa (higiezin horretan daude erroldatuta Cruz andrea eta Rogelio jauna) nabarmen jaitsi da 2019tik aurrera, eta, aldi berean, nabarmen igo da 2008an Genevillan (Nafarroa) erositako higiezinaren elektrizitate-kontsumoa.
- 2022ko apirilaren 5ean, GFAko aktuarioak MANVERen Donostiako egoitza sozialean agertu ziren, baina erakundearen bazkideak eta administratzailea ez ziren bertan.
- Aldi berean, GFAko Ikuskaritzak Cruz andrearen eta Rogelio jaunaren helbidea aldatzeko espedienteak izapidetu zituen, eta, halaber, zerga-egoitza Nafarroara aldatzea proposatu zien.

3.- 2023ko maiatzaren 9an, GFAko Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusiak, aurreko txostenean oinarrituta, helbidea aldatzeko proposamena igorri zion NFOko Ikuskatze Zerbitzuari, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onartzen duen 12/2002 Legearen 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitakoaren babesean, 2019ko apirilaren 1era arteko atzeraeraginekin.

4.- Ekonomia Itunaren 43. artikuluen bederatzigarren apartatuan ezarritako 4 hilabeteko epea igarota ere, NFOren erantzun formalik jaso gabe, GFAk 2023ko urriaren 6an gatazka planteatu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean (140/2023 zenbakiarekin izapidetzen ari dena), MANVERen zerga-egoitza 2019ko apirilaren 1az geroztik Genevillan (Nafarroa) zegoela deklaratzeko eskatuz.

5.- 2023ko urriaren 17an, GFAk beste gatazka-planteamendu bat helarazi zion Arbitraje Batzordeari, 145/2023 zenbakiarekin izapidetzen dena eta 140/2023 gatazkaren subjektuak, xedea eta kausa berak dituenak.

6.- Gatazkak planteatu ondoren, 2023ko azaroaren 28an, NFOk MANVER erakundearen zerga-egoitzaren zuzenketa onartzen zuela jakinarazi zion GFari, eta egiaztatutzat jo zuen zerga-egoitza Genevillan (Nafarroa) zuela, 2019ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.

7.- 2024ko urtarrilaren 24an, GFAk eskatu zuen 140/2023 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egindakotzat jotzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazkak ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio “Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

2.- Egoitzaz aldatzeko prozedurari aplikatu beharreko arauak.

Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikulua hau xedatzen du:

“Bederatzi. Administrazio interesdunetatik edozeinek eragin ahal izango du zergadunaren egoitza-aldaketa. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta lau hilabeteko epea emango dio egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Beste administrazioak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikulua honetako Sei apartatuan azaldutako eran.

Egoitza aldatzeko proposamena igorri aurretik, administrazio interesdunak, beste administrazioarekin elkarlanean, erroldaren bidez egiaztatu ahal izango du egoitza fiskala.

Bi administrazioek adostu ondoren edo Arbitraje Batzordearen ebazpenaren ondorioz egoitza ofizioz aldatuz gero, aurkako frogarik ezean, era horretan xedatutako egoitza fiskalari ebazpenaren ondorengo hiru urteetan eutsiko zaiola ulertuko da.”

Ekonomia Itunaren 43.Sei artikulua hau xedatzen du horren inguruan:

“Sei. Zergadunen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean desadostasunak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergadunek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori ekonomia-itun honen III. kapituluko 3. atalean dago araututa.”

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onesten duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 13.3 artikulua arabera:

“3. Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren apartatua aipatzen den lau hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango artikulua honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen den errekerimendua edo eskumengabetasun-aitorpena egitea gatazka aurkeztu ahal izateko.”

3.- Prozedurak metatzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluko igorpenari jarraikiz, hauxe dio:

“Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.

Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.”

4.- GFAk 140/2023 gatazkan atzera egitea.

GFAk 2024ko urtarrilaren 24an eskatu zuen GFAk, NFOk MANVER erakundearen zerga-egoitzaren aldaketa 2019ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin onartu zuela ikusita, 140/2023 zenbakiarekin izapidetzen ari den gatazkari dagokion prozeduran atzera egitea onartzeko.

Prozedura amaitzeko modu gisa atzera egitea jasota dago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APAPL) 84. artikuluan, eta aplikatzekoa da, kontuan harturik betiere Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikulua egindako igorpena.

Illo horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du GFAk eskatutako atzera egitea, ez baita ageri edo ez baita pertsonatu hirugarren interesdunik prozeduran, eta gatazkan sortutako auzia ez baita ez interes orokorrekoa eta ez baita komenigarria definitzeko eta argitzeko bideratzea.

Beraz, ebazpen hau ematen da, APAPELaren 21.1 artikuluan aipatzen diren erabakiak dakartzana.

5.- 145/2023 gatazkaren xedea gerora galtzea.

Xede bera dute 145/2023 gatazkak eta 140/2023 gatazkak, non GFAk atzera egitea eskatu baitzuen 2024ko urtarrilaren 24an.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKI DU

1.- 140/2023 eta 145/2023 gatazkak metatzea.

2.- 140/2023 gatazkan Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako atzera egitea onartzea.

3.- 140/2023 eta 145/2023 gatazkak artxibatutzat jotzea, prozeduren xedea gerora galdu izanaren ondorioz.

4.- Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Nafarroako Foru Ogasunari eta MANVER GIZARTEA, S.L.-ri jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.